



## **ARARTEKOAK TXOSTEN BEREZI HAU AURKEZTEN DIO EUSKO LEGEBILTZARRAREN GIZA ESKUBIDEEN, BERDINTASUNAREN ETA HERRITARREN PARTAIDETZAREN BATZORDEARI:**

### **FAMILIEI LAGUNTZEKO POLITIKAK EUSKADIN: AZTERKETA ETA PROPOSAMENAK**

Vitoria-Gasteiz, 2015eko azaroaren 30a

Presidente andrea, legebiltzarkideok. Berriz ere pozik agertzen naiz Giza Eskubideen, Berdintasunaren eta Herritarren Partaidetzaren Batzorde honen aurrean, *Familiei laguntzeko politikak Euskadin* izenburuko txostenean atera ditugun ondorioak zuei jakinarazteko. Txosten hori iaz argitaratu zuen Arartekoak, gogoratuko zaretenez, eta 2014ko ekainaren 25ean eman zitzaion Legebiltzarreko presidenteari.

Agerraldi honetan alboan ditut Julia Hernández arartekoaren ondokoa, Faustino Lopez de Foronda idazkari nagusia, Inmaculada de Miguel azterlanetako zuzendaria eta Elena Ayarza Haur eta Nerabeentzako Bulegoko zuzendaria.

2010ean Arartekoak familiei arreta emateko lan arlo berria sortzea erabaki zuen. Hala, erabaki horrek oinarri izan zuen pertsonen eskubideak bermatzea xede duen erakunde batek eman beharreko arreta bereziko subjektu sozialtzat jo behar dela familia.

Familia gizabanakoak hezteko eta guztiz garatzeko euskarri materiala eta afektiboa da, afektuari eta elkartasunari lotutako lehenengo harremanetarako lekua, baita zaintzaren bizipenetarako ere eta, bestek beste, prestatutako pertsonak gure sistema sozioekonomikoan txerta daitezten bermatzen du haien laneratzearen eta partaidetzaren bitartez interes orokorrari lagunduz.

Horrez gain, garrantzitsua da azpimarratzea erakunde publiko bakar batek ere ezin dituela familiak ordezkatu adingabe, adineko eta gaixotasun edo mendetasunagatik premia bereziak dituzten pertsonak zaindu eta artatzea bezalako zereginak burutzean. Horregatik guztiagatik, familiei arreta ematea estatuarentzako funtsezko estrategia publikoa eta beharrezkoa izan behar da.

Horregatik guztiagatik, familiei laguntzeko politika horiek bultzatu eta indartzen laguntzeko asmoz, txosten hau egin dugu. Horren bidez argitu nahi dugu zertan diren arlo horretako egungo politikak eta neurriak, baita ere zeintzuk diren euskal familien beharrak eta eskaerak.



## A) ONDORIO NAGUSIAK

### 1. *Familia gizarte-eraikuntza bizi bat da, etengabe garatzen da eta gizarte-aldaketan beren argitan aldatzen da, eratzeko moduak, barne-egitura edo konposizioa ere aldatzen direlarik, baina zeregin apartak egiten jarraitzen du.*

Familia-ereduak gizarte-egitura aldakor honetan murgilduta daude. Horregatik, horiek ere aldatzen eta bilakaera izaten ari dira. Nahiz eta oraindik ere, familia-egituraren ereduen artean, familia-nukleoa eta seme-alabak oinarri dituen eredurik tradizionalena nagusitu (Euskadiko 787.000 pasatxo familietatik %38), horrek pixkanaka garrantzi apur bat galdu du, beste eredu batzuen mesederako: adibidez, seme-alabarik gabeko bikoteak (%20,9) edo bakarrik seme-alabarik gabe bizi diren pertsonak (%21,6).

Familia eredu berri hauek sortzean eta sendotzean, gero eta indar handiagoz sortzen ari dira **familia osatzeko modu berriak** (familia homoparentalak, guraso bakarrekoak edo ezkontza bidez arautu gabeak), baita **famili barruan harremanak izateko modu berriak** ere, familia guztietan: familiako kideek egunetik egunera autonomia handiagoa dute, eta familia barruan gehiago negoziatzen da.

Hala ere, familia-ereduen bilakaera aztertzean, **seme-alabak dituzten ereduen ehunekoak eta horren berariazko tamainak behera egitea** izango da, agian, gakoa, lotura berezia daukalako familiei laguntzeko politika publikoekin. Izan ere, familien batez besteko tamaina, eredurik tradizionaletan nahiz berriki sortu edota araututakoetan, etengabe murrizten ari da orain hogeitau urte baino gehiagoz geroztik. Horrela, EAEn, 20 urtetik beherakoak baino gehiago dira 65 urtetik gorako pertsonak.

Nagusiki **bi faktorek** azaltzen dute egoera soziodemografiko hori (ez erabat jendeak nahi duena, bada familiek adierazten dute nahi baino seme-alaba gutxiago dituztela) eta bi faktore horiek familiei laguntzeko politika publikoen ikuspegitik azter daitezke:

- Hasteko, **Euskadi gazteak beranduen emantzipatzen diren-eta**, beraz, familia propioak beranduen sortzen dituzten-**Europako eskualdeetako bat da**, hainbat aldagai sozioekonomiko direla-eta: esaterako, lana oso eskasa eta ezegonkorra da, etxebizitzak oso garestiak dira-erosteko nahiz alokatzeko-, edo ikasketa-aldian –berez luzea-gazteak gutxi mugitzen dira geografian barrena.
- Bestalde, **zailtasun handiak daude familia, lana eta norberaren bizitza bateragarri egiteko**, bai kultura-faktoreengatik (izan ere, oraindik emakumeak arduratzen dira gehienbat etxeko lanez eta familia zaintzeaz), bai ekoizpen-sistemaren ondoriozko faktoreengatik. Sistema hori ordutegi erabilgarria edo malgutasuna lehenesten duten balioetan oinarrituta dago, eta egoera hori aldatzeko gauza izan ez diren neurri publikoetan (zuzeneko neurriak nahiz sentsibilizatzekoak).

**2. *Familiei laguntzeko politikak funtsezkoak izango dira familia-mota desberdinak garatu ahal izan daitezen eta gizarte-eraikuntzako funtzio antolatzaileak guztiz bete daitezen, giza sozializazioari, hezkuntzari eta bizikidetzari dagokienez.***

Herri-administrazioek familiei lagundu beharko diete, haien kostuak berdinduz eta haien zeregina erraztuz, baliabideen eta zerbitzuen bitartez. Gainera, politika eragingarriak eratu behar dira familiak nahi bezala garatu ahal izan daitezen, tamainari, antolaketari eta bizikidetzaren ereduari dagokienez.

**3. *Familiei laguntzeko politika zehatzak babestu eta garatzeko asmoz, Euskadin azken urteetan legegintza-esparru aurreratua ezarri da familien eskubideei eta familia-aniztasuna onartzeari dagokienez.***

Familien gaineko araudi esparru propioa eta berria izateak (familiei laguntzeko 13/2008 Legearekin eta haren garapen-tresnekin bat) aukera ematen du familiei laguntzeko politika propioa gauzatzeko, nahiz eta oraindik ez dauzkan bere eragina areagotzeko behar bezainbeste neurri.

Euskal legegintza-esparrua aztertuta ondorioztatu daitekeenez, jauzi nabarmena egon da familia desberdinak daudela aitortu eta horiek babesteko orduan. Hala bada, gure autonomia-erkidegoangizarte aldetik aurreratuta dagoen legegintza-egitura bat ezarri da Europako esparruaren barruan, batez ere askatasun afektibo eta sexualaren gaineko eskubideei dagokienez, edo mendetasunari, babes faltari eta bazterkeriari arreta emateko gizarte-zerbitzuen gaineko eskubideei dagokienez.

Edonola ere, egia da Euskadin oraindik ere alderdi ahulak daudela: esaterako, oraindik apustu publiko eskasa egiten da familia, lan eta bizitza pertsonalaren bateragarritasuna gogo handiagoz bultzatzeko tresna eragingarriak garatzearen alde, eta hori funtsezkoa da biztanleriaren piramidearen aldaketan, zeina gehien garatutako eta eragin handieneko elementuetako bat baita Europan.

Laburbilduz, araudi-esparru horrekin batera, aurrekontu-hornidura nahikoak dituzten tresna eragingarriak ere garatu behar dira.

**4. *Beraz, familientzako politika aurreratua eta zeharkakoa garatzeko erronkek honako gai hauek dituzte helburu:***

- Eusko Jaurlaritzaren buruzagitza bultzatzea eta familiei laguntzeko politiken zeharkakotasuna lortzeko neurriak hartzea.

Hori lortzeko, alde batetik, egungo administrazio-egiturak gizarte-eskaeretara doitu behar dira; eta, bestetik, behar adina garatu behar da familiei laguntzeko euskal legeria: zehazki, esparru juridiko egoki eta osoa sendotu behar da, familien errealitateen berezitasunei hobeto erantzungo dieten neurriak hartzeko.

- Inbertsio publiko handiagoa, seme-alabak dituzten familien gastuak berdintzeko

Euskadik, orain arte, kostuak berdintzeko sistema bat sortu du, ez unibertsala, kenkari-egilea batez ere, hau da, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan (PFEZ) egindako kenkarietan oinarritua gehienbat.

Gure inguruko beste herrialde batzuetan, erabakitasunez apustu egiten dute seme-alabak izan, hazi eta hezteak berekin dakarren familia-ahaleginaren alde. Pixkanaka herrialde horien parean jarri nahi badugu, diru-ahalegin publiko handiagoa egin beharra dago, seme-alabak dituzten familientzako zuzeneko laguntzak unibertsalizatzeko. Orobat, interesgarria izango litzateke zerga-ereduaren ahulgune eta indarguneei buruzko hausnarketa-prozesu bat hastea (adibidez, bere benetako progresibotasunaz), konponbide berritzaileagoak eta inklusiboagoak bilatuz, Europako beste errealtate batzuetan gertatzen denaren antzera.

- Norberaren bizitza, familia eta lana bateragarri egiteko neurriak sakon aztertzea, garatzea eta zabaltzea.

Europar Batasuna hainbat neurri bultzatzen ari da, baina neurri horiek egitura-aldaketak eta balio-aldaketak exijitzen dituzte, helburu hori lortzeko bidean aurrera egin nahi bada. Honatx neurri horietako batzuk: bateragarritasun arloan estrategia koordinatuak bultzatzea, sentsibilizatzeko estrategiak garatzea, unibertsaltasunera bideratutako baliabide eta laguntza eraginkorrek abiaraztea.

- Egoera ahulean dauden familiei laguntzea

Euskadin oraindik ere sakondu beharra dago babes gutxiena duten edo zailtasun objektibo gehiago dituzten familiei bereziki laguntzeko neurrietan, batez ere hiru arlo hauetan:

- Legerian familia egoera ezberdinak aintzat hartzea (beharbada, guraso bakarreko familia izango da ezagunena), familiei laguntzeko euskal legeak garatzen dituen tresnak erabiliz babes eta laguntza egokia izan ditzaten.
- Laguntza sozioekonomikoa, familia barruko zailtasun ekonomiko objektibagarriak gutxitzeko edo arintzeko sostenguak eta baliabideak gehituz.
- Bereizkeria sortzen duten gizarte- edo kultura-faktoreen kontra borrokatzea, arrazoi horiengatik gizarte-egoera ahulean dauden familiek laguntza-tresna eragingarriak izan ditzaten.

## B) GOMENDIOAK

Arrazoi operatiboengatik eta azalpena argiagoa izateko, gure gomendioak bost ardatz tematiko handiren inguruan antolatu ditugu:

**a. Familiei Laguntzeko 13/2008 Legean ezarritako helburuak abiarazteko esparru juridikoa garatzeari buruzko gomendioa**

1. Gomendatzen da Eusko Jaurlaritzak ezar ditzala Familiei laguntzeko 13/2008 Legean finkatutako helburu nagusiak; horretarako, baliabide edo babes berezia merezi duten familia-errealitate desberdinak identifikatuko dira.

**b. Familiei laguntzeko politiken inguruan erakundeen antolaketa hobetzeko gomendioak**

2. Gomendatzen da Eusko Jaurlaritzak instantzia publiko desberdinetatik susta dezala familiei laguntzeko neurri eta politiken diseinu koordinatua. Horretarako, funtsezkoa da Eusko Jaurlaritzak buruzagi zeregina hartzea, bereziki familiei laguntzeko erakunde arteko plana abiaraztea beharrezkoa delako.
3. Eusko Jaurlaritzari gomendatzen zaio, foru aldundien eta udalen lankidetzarekin hala badagokio, familientzako informazio-tresna osoak sor ditzala, bide erraztuak abiaraz ditzala herritarrek jakin dezaten Euskadiko familiekzer baliabide eta zerbitzu dituzten eskura.
4. Euskal administrazio guztiei eta, bereziki, Eusko Jaurlaritzari gomendatzen zaie ahalegina egin dezatela, euren eskumen-eremutik, Europako jarduera onak identifikatzeko, horiek gidatzen hartuta, euskal testuingurura egokitu ahal izan daitezten, familiak artatzeko eredu berriak diseinatzeko orduan.
5. Eusko Jaurlaritzari gomendatzen zaio Familiak Babesteko Erakunde arteko III. Planaren indarraldia luzatzeko aukera azter dezala, bertako neurri guztiei heldu ahal izateko, plan horrek legealdi honetarako finkatu dituen lehentasunez gain.

**c. Familian egindako inbertsio publikoa indartzeko gomendioak, batez ere seme-alabak dituzten familien gastuak berdintzeko**

6. Euskal administrazio guztiei eta, bereziki, Eusko Jaurlaritzari eta foru aldundiei gomendatzen zaie gehitu dezatela familien (batik bat seme-alabak dituztenen) gastuak berdintzeko neurri ekonomikoetan egiten den inbertsio publikoa, pixkanaka Europako beste herrialde batzuetako inbertsiorahurbildu gaitzen.

Familiak babesteko 13/2008 Legearen 10.5 artikuluan ezarritakoa betez *“euskal herri-administrazioak progresiboki zabalduz joango dira ardurapeko seme-alaba adingabeengatik ematen diren zuzeneko diru-laguntzak, 2020. urtean Europar Batasunaren mailan izateko”*– uste dugu eremu honetan eskumenak dituzten euskal administrazioek Euskadiko BPGren %2ra arte gehitu dutela, pixkanaka, familiei laguntzeko gastua, Europako batez bestekora iristeko seme-alaba bakoitzeko laguntzei dagokienez, bai kopuruari bai iraupenari dagokionez, eta gutxienez derrigorrezko hezkuntza-aldia estalita izateko.

7. Horretarako, gai horretan eskumena duten euskal administrazioei gomendatzen zaie sistema unibertsalera bidera dezatela seme-alabak dituzten familientzako laguntza ekonomikoen sistema, eta ez dadila oinarritu (oraingoa bezala) batez ere zerga kenkarietan.



8. Zerga-sistemari dagokionez, foru aldundiei eta Eusko Jaurlaritzari gomendatzen zaie koordinazio sozio-fiskala indartzeko neurriak ezar ditzatela –osoko estrategien bidez– eta aurrera egin dezatela horien eragina egiaztatzeko ekimen pilotuak garatzen. Zehazki, hauxe gomendatzen da:

- Foru aldundiek azter dezatela ea aukerarik badagoen *kenkari itzulgarrien* sistema saiakuntza gisa aplikatzeko prozesu pilotuak egiteko, eredu horren egiazko eragina (soziala eta ekonomikoa) eta ondorioak (onak eta txarrak) neurtu ahal izan daitezen, familiei laguntzeko ereduaren unibertsaltasunean aurrera egiteko.
- Foru aldundiek eta Eusko Jaurlaritzak gizarte-eremuaren eta zerga-eremuaren arteko koordinazio handiagoa lortzen aurrera egin dezatela, estrategia barneratzaile partekatuak diseinatuz. Estrategia horietan kontuan hartu behar dafamiliei bi sistemek eskaintzen dieten laguntza, Europako gure inguruan jada egiten den bezala.

#### **d. Familia, lana eta norberaren bizitza bateragarriago egiteko gomendioak**

9. Euskal administrazio guztiei gomendatzen zaie neurriak har ditzatela pertsonak eta enpresak gizartean ohar daitezen zein garrantzitsua den pertsonak zaintzeko orduan ardura partekatzea eta familia nahiz lana bateragarri egitea.
10. Euskal administrazio guztiei gomendatzen zaie indartu edo gehitu ditzatela, euren eskumenen arabera, bateragarritasuna erdiesteko programak, baimenak eta zerbitzuak.
11. Eusko Jaurlaritzari gomendatzen zaio diru-laguntzen sistema unibertsal bat mantendu dezala, bateragarritasunak berekin dakartzan gastuak zati batean berdintzeko.

#### **e. Zenbait gomendio, familietan eragin handia duten sektore arloko neurriak sustatzeko eta egoera txarrean dauden familiei laguntzeko: familietan eragina duten beste sektore batzuetatik esku hartzea**

Azkenik, garrantzitsua iruditzen zaiguzenbait gomendio egitea, arestian aipaturikoen osagarri. Gomendio horiekzerikusia dute jarduera-eremu desberdinetatik datozen neurriekin, baina denek eragin handia dute familien egoeran. Eremu askotan barneratzen direnez gero, eta txostena jada irakurri dela kontuan hartuta, ez naiz hori azaltzen luzatuko. Hala ere, horietaz gero hitz egin dezakegu.

Eskerrik asko eskaini didazuen arretagatik. Zuen esanetara nago.